

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua: EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 586/2008/EE ERABAKIA, 2008ko ekainaren 17koa, 896/2006/EE Erabakia aldatzen duena. Erabaki horretan pertsonak EBren kanpoko mugetan kontrolatzeko erregimen sinplifikatua finkatzen da. EBko estatuek Suitzak eta Liechtensteinek luzatutako bizileku-baimen jakin batzuk EBtik igarotzeko beren kasa onartzean oinarritzen da erregimen hori.

Ondorengo itzulpena Eusko Jauriaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakunde (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da : «DECISIÓN Nº 586/2008/CE DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO, de 17 de junio de 2008, que modifica la Decisión nº 896/2006/CE, por la que se establece un régimen simplificado de control de las personas en las fronteras exteriores basado en el reconocimiento unilateral por los Estados miembros de determinados permisos de residencia expedidos por Suiza y Liechtenstein para fines de tránsito por sus criterios» (Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 162/27, 2008/6/21ekoa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA KONTSEILUAK BATERA HARTUTAKO ERABAKIAK

EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 586/2008/EE ERABAKIA

2008ko ekainaren 17koa

896/2006/EE Erabakia aldatzen duena. Erabaki horretan pertsonak EBren kanpoko mugetan kontrolatzeko erregimen sinplifikatua finkatzen da. EBko estatuak Suitzak eta Liechtensteinek luzatutako bizileku-baimen jakin batzuk EBtik igarotzeko beren kasa onartzean oinarritzen da erregimen hori.

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNeko KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzen duen Tratatuaz aztertu dute, eta, bereziki, haren 62. artikuluko, 2. paragrafoa a) idatz-zatia,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Tratatuko 251. artikuluan ezarritako prozedura ⁽¹⁾ bete dute,

Alderdi hauek hartu dituzte kontuan:

(1) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 896/2006/EE Erabakian ⁽²⁾ arau komun batzuk finkatzen dira EBko kideek Suitzan eta Liechtensteinen luzatutako bizileku-baimen jakin batzuk beren kasa onartzeko. Agiri horiek dituzten beste herrialde batzuetako herritarrak EBren kanpoko mugetan kontrolatzeko erregimen sinplifikatua ezartzen da, horrela.

(2) Schengengo altxorra bi etapatan aplikatzekoa izanik, EBn 2004ko maiatzaren 1ean sartu ziren estatuak bisatu nazionalak eman behar dizkiete egun horretatik aurrera, beste herrialde batzuetakoak izanik Suitzak edo Liechtensteinek luzatutako bizileku-baimena izan eta, Kontseiluaren 539/2001 (EE) Erregelamenduaren arabera — 2001eko martxoaren 15ekoa, EBko mugak zeharkatzeko bisatua behar duten herrialdeen zerrenda finkatzen duena eta betebeharrak hori bete behar ez duten herrialdeen zerrenda onartzen duena—, bisatua behar duten herritarrei ⁽³⁾. Betebeharrak horiek administrazio-karga osagarriak eragin zizkien EBko estatu horiek Suitzan eta Liechtensteinen dituzten kontsulatuak.

(3) Dena den, ez zen beharrezkotzat jo EBtik igarotzeko bisatua eramateko betebeharrak ezartzea multzo horretan sartzen diren pertsonen, pertsona horiek arrisku txikia dutelako EBko estatuaren legez kanpoko etorkinak bihurtzeko.

(4) Bulgariarekin eta Errumaniarekin ere arrazoibide bera erabil daitekeela kontuan izanik, 896/2006/EE Erabakiaren bidez ezarritako erregimen sinplifikatua aplikatu behar zaie Bulgariari eta Errumaniari ere.

(5) 896/2006/EE Erabakiaren aldaketa horri jarraiki, Bulgariak eta Errumaniak Suitzak eta Liechtensteinek luzatutako bizileku-baimenak onartu ahal izango dituzte beren igarotze-bisatu nazionalen baliokidetzat, baldin eta erabakitzen badute Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 582/2008/EE Erabakia aplikatzea —2008ko maiatzaren 17koa, pertsonak kanpoko mugetan kontrolatzeko erregimen sinplifikatua ezartzen duena, Bulgariak,

(1) Europako Parlamentuaren Irizpena, 2008ko urtarrilaren 31koa (Egunkari Ofizialean oraindik argitaratu gabea) eta Kontseiluaren Erabakia, 2008ko ekainaren 5koa.

(2) L 167 EO, 2006/06/20koa, 8. or.

(3) L 81 EO, 2001/03/21ekoa, 1. or. Azkenik 1932/2006 (EE) Erregelamenduak (L 405 EO, 2006/12/30ekoa, 23. or.) aldatutako Erregelamendua.

586/2008/EE Erabakia (EBren Egunkari Ofiziala, L 162/30, 2008/6/21ekoa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Ziprek eta Errumaniak beren lurraldeetatik igarotzeari dagokionez agiri jakin batzuk beren bisatu nazionalen baliokidetzat onartzean oinarrituta ⁽²⁾—.

(6) Onarpen hori Bulgariatik eta Errumaniatik igarotzeko soilik izango da, eta ez du eraginik izango bi estatu horiek egonaldi laburretarako bisatu nazionalak luzatzeko duten ahalmenean.

(7) Bulgariak eta Errumaniak 896/2006/EE Erabakia aplikatzeko aukera indarrean egongo da Kontseiluak finkatzen duen aldi baterako epera arte, 2005eko Bat-egite Aktako 4. artikuluko, 2. paragrafoko, 2. lerrokadarekin bat etorriz.

(8) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 562/2006 (EE) Erregelamenduko —2006ko martxoaren 15ekoa, pertsonak mugak zeharkatzeko EBko arau-kodea (Schengengeko muga-kodea) finkatzen duena ⁽²⁾— 5. artikuluko 1. paragrafoak EBn sartzeko finkatutako baldintzak bete behar dira, 5. artikuluko 1. paragrafoko b) idatz-zatian finkatutako baldintza kasuan izan ezik, Erabaki honek baliokidetza-erregimen bat eratzen baitu, Bulgariak eta Errumaniak beren lurraldeetatik igarotzeko luzatutako bisatuen eta Suitzak eta Liechtensteinek luzatutako zenbait bizileku-baimenen artean.

(9) Zuzentarau honen helburua EBko estatuek beren kasa bakarrik lortzerik ez dutenez, EBren kanpo-mugen gaineko ondarean eragiten duelako zuzenean, eta, ondorioz, ekintzaren hedadura eta ondorioak EB mailan hobeto lor daitezkeenez, Erkidegoak dagozkion neurriak har ditzake, Tratatu 5. artikuluan jasotako subsidiariotasun-printzipioari jarraiki. Artikulu horretan aipatzen den proportzionaltasun-printzipioarekin bat etorriz, Erabaki hau ez da joaten helburu hori lortzeko beharrezkoa dena baino haratago.

(10) Islandiari eta Norvegiari dagokienez, Erabaki honek Schengengo altxorra xedapenak garatzen ditu, Islandiako Errepublikak eta Norvegiako Erresumak Schengengo altxorra betearazi, aplikatu eta garatzeko Europar Batasuneko Kontseiluak bi estatu horiekin sinatutako Hitzarmenarekin ⁽³⁾ bat etorriz. Xedapen horiek Kontseiluaren 1999/437/EE Erabakiko —1999ko maiatzaren 17koa, Hitzarmena garatzeko arau jakin batzuei buruzkoa ⁽⁴⁾— 1. artikuluko A puntuan aipatzen den esparrukoak dira.

(11) Danimarkaren jarrerari buruzko Protokoloko 1. eta 2. artikuluei jarraiki —Europar Batasunaren Tratatuaren eta Europako Erkidegoa eratzen duen Tratatuaren eranskina—, Danimarkak ez du Erabaki honetan parte hartzen eta, hortaz, Erabakia ez da loteslea beretzat eta ez dauka aplikatu beharrik. Erabaki honek Schengengo altxorra Europako Erkidegoa eratzen duen Tratatu IV. tituluko hirugarren zatiarekin bat etorriz garatzen duenez, Protokoloko 5. artikuluari jarraiki, Erabaki hau bere legedi nazionalean sartu ala ez erabaki beharko du Danimarkak sei hilabeteko epean.

(12) Erabaki honetan garatzen diren Schengengo altxorreko xedapen batzuk ez dagozkio Erresuma Batuari, Kontseiluaren 2000/365/EE Erabakiaren —2000ko maiatzaren 29koa, Britainia Handiko eta Ipar Irlandako Erresuma Batuak Schengengo altxorreko xedapen batzuetan ez parte hartzeko egindako eskariari buruzkoa ⁽⁵⁾— arabera. Ondorioz, Erresuma Batuak ez du Erabaki honetan parte hartzen eta, hortaz, Erabakia ez da loteslea beretzat eta ez dauka aplikatu beharrik.

(13) Erabaki honetan garatzen diren Schengengo altxorreko xedapen batzuk ez dagozkio Irlandari, Kontseiluaren 2002/192/EE Erabakiaren —2002ko otsailaren 28koa, Irlandak Schengengo altxorreko xedapen batzuetan ez parte

(1) L 161 EO, 2008/06/20koa, 30. or.

(2) L 105 EO, 2006/04/13koa, 1. or.

(3) L 176 EO, 1999/07/10ekoa, 36. or.

(4) L 176 EO, 1999/07/10ekoa, 31. or.

(5) L 131 EO, 2000/06/01ekoa, 43. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

hartzeko egindako eskariari buruzkoa ⁽¹⁾— arabera. Ondorioz, Irlandak ez du Erabaki honetan parte hartzen eta, hortaz, Erabakia ez da loteslea beretzat eta ez dauka aplikatu beharrik.

ERABAKI HAU ONARTU DUTE:

1. artikulua

Paragrafo hau gehituko zaio 896/2006/EE Erabakiko 2. artikuluari: «Bulgariak eta Errumaniak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 582/2008/EE Erabakia —2008ko maiatzaren 17koa, pertsonak kanpoko mugetan kontrolatzeko erregimen sinplifikatua ezartzen duena, Bulgariak, Ziprek eta Errumaniak agiri jakin batzuk beren lurraldeetatik igarotzeari dagokionez beren bisatu nazionalen baliokidetzat onartzean oinarrituta (*)— aplikatzea erabakitzen badute, Erabaki honen eranskinean zehaztutako bizileku-baimenak beren lurraldeetatik igarotzeko bisatu nazionalen baliokidetzat hartu ahal izango dituzte, Kontseiluak, 2005eko Bat-egiteko Aktako 4. artikuluko 2. paragrafoko bigarren lerrokadarekin bat etorriz, finkatzen duen datara arte.

(*) L 161 EO, 2008/06/20koa, 30. or.».

2. artikulua

Bulgariak eta Errumaniak 896/2006/EE Erabakia aplikatzea erabakiz gero, Batzordeari jakinarazi beharko diote Erabaki hau indarrean sartu eta hamar laneguneko epean. Estatu kideek jakinarazitako informazioa *Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean* argitaratuko du Batzordeak.

3. artikulua

Erabaki hau *Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean* argitaratu eta hogeiei egunera sartuko da indarrean.

4. artikulua

Estatu kideak dira erabaki honen hartzaileak, Europako Erkidegoa eratzeko Tratatuari jarraiki. Estrasburgon emana, 2008ko ekainaren 17an.

Europako Parlamentuaren izenean, presidentea: H.-G. PÖTTERING

Kontseiluaren izenean, presidentea: J. LENARČIČ

(1) L 64 EO, 2002/03/07koa, 20. or.